

PuLunPe

138. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



BEGIRADAK

GURE ESKUAK BIHOTZAREN
LUZAPENA DIRELA DIOTE,
ETA BEGIAK, ALDIZ, ARIMARENA.

LEIHO BATETIK GURE BIZITZA
BEGIRATZEN DUGU,
ESPERIENTZIARA GONBIDATZEN DUTEN BEGIRADEK,
SENTSAZIOAK,
EMOZIOAK. BARRUALDEKO BISUALIZAZIOA
DIRA GURE BEGIAK,
ETA KANPOALDEA, BIZITAKOAREN ETA GURE BIHOTZAREN
TESTIGU.

IRUDIA: TXETXU BIGURI

Garikoitz Etxarri



Banatzaile sare handia dugu Pulunpen. Hilero-hilero banatzen dute aldizkaria etxez etxe, proiektu hau guztiona eginez. Gaurkoan Muskiza egin dugu bisita, eta bertan aurkitu ditugu Gari eta ama etxean lasai-lasai. Hiriko bizimodua utzi eta duela bost bat urte etorri zen hona Gari familiarekin.

Nolatan bukatu duzue hemen familia guztia?

Etxe hau gure aitona erosi zuen aspaldi. Baribarkoa zen gizona, gure aita ere Baraibaren jaio zen. Ama Iribasen jaio zen, Larraunen biak. Aitona hazienda eta ganadurekin ibiltzen zen eta garai horietan hemen etxea eta lurra erosteko aukera ona ikusi eta hala egin zuen. Duela 70 urte inguru izan zen hau. Aita Volkswagen fabrikara lanera joan eta Iruñean bizi ginen. Denbora pasa ahala herriko etxea konpontzen joan ginen. Hamar urte luzez, familiakoen artean lana egin eta gurasoak Muskiza bizitzera etorri ziren. Geroago guk ere etxeke bigarren solairua konpondu eta hona bizitzera etorri ginen.

Nola egiten duzue aldizkariaren banaketa?

Legealdi honen hasieran hasi nintzen ni. Banaketa hiru pertsonen artean egiten dugu, herriko alkate den Alfredo Alzuetak eta Imozko Udal langilea den Xabi Sarasak ere egiten du. Lanak ez du batere esfortzurik eskatzen; bueltatxo bat heritik eman eta listo, edo igandea bada, paseo bat eman

edo autoarekin ere egiten dut batzuetan: joatekoan herriko zati batean banatu eta itzultzerakoan beste zatian. Etxe bakoitzean beti leku berdinean uzten dugu.

Pozik al zaudete herrian?

Oso pozik. Herrira etorri aurretik, Berriozaren bizi ginen. Halere, betidanik Donibane auzoan bizi izan gara. Berriozaren seme alabarik ez genuenean nahiko ongi bizi ginen, egia esan, baina lehengo semearekin kulunketara joateko jende ilara luzea aurkitzen genuen beti. Muskiza etorri eta egoera kontrakoa zen, ez zegoen umerik! Sekulako bizitza-aldaketa izan zen, hobera. Jaiotzak egon dira eta orain bederatzi urtetatik beherako 8 ume daude. Bizitza sortuz doa. Semea hazten zen ehinean zenbait gabezia sumatu eta orain autoarekin goaz handik eta hemendik. Arazo handiena beti autoan ibili beharra, distantziak handiak direlako; halere, herri honetatik sarrera desberdinak ditugu: Irurtzun aldera, Latasa aldera eta bestea Markalain aldera, alde horretatik ondo.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi. Azala: Patxi Oscoz. EMAILA: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan


Koordinatzailea: **Iosu Martinez Urdaci**

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrusta eta Urtebetetzetara bidaltzen dituzuenak.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93

2015KO OTSAILAREN 3AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



HORMARA

Kultur Ekimenak


Otxaila

Erakusketak

Gerrak ez du izenik

Otsailaren 10tik martxoaren 9ra

Ebepare Sariaren irabazle izan zen liburuaren ilustrazioak ekarriko ditu Maite Mutuberriak Larraintzarrera. Marrazkiak sortzeko erabili zituen argazki zaharrak eta lanean egindako ziriborroak egongo dira baita ere ikusgai.



Larraintzarko Benta
Gizarte Etxea



*Ostrak kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...

ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitzete!
Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugi@gmail.com*

19:00 LARRAINTZAR

6



PELIKULA GRAVITY

Satelite bat konpontzen ari diren bitartean, bi astronauta istripu larri bat izaten dute eta espazioan bakarrik geratzen dira. Ahalegin guztiak egingo dituzte Lurrara berriro bueltatzeko.

18:30 LARRAINTZAR

13



TAILLERRA
Gerrak ez du izenik

Nola sortzen da liburu bat? Nork egiten ditu liburuetako marrazkiak? Posible al da gerra kolore eta argazkiekin kontatzea? Maite Mutuberria ilustratzaileak galdera hauei erantzun egiten die haurrei, gazteei eta helduei zuzendutako tallerrean. Horretarako, irakurri, marraztu, argazki zaharrak proiektatu eta irudietan ezkutaturako sekretuak erakutsiko ditu.

19:30 LARRAINTZAR

20



AHT HITZALDIA - CHARLA TAV

AHT-ren aurkako borrokaaren historia Euskal Herrian. Hizberak Ziauritzko Xexu eta Iruñako Julio Villanueva.

aht desobeditu

18:30 LARRAINTZAR

27



Film laburraren emanaldia / Proyección corto
Bular minbizia / Cáncer de mama
La teta que os falta

Carlak bular minbizia gainditu duen emakumea da. Ebakuntza dela eta gal batzen inguruko ikuspuntua aldatu da.

Solasaldia/Tertulia: Nerea Alonsorekin. Psiko-onkologoa. Asociación SARAY elkarte.
Testigantza pertsonala kontatuko duen emakumeak lagunduta.

#HANKAZGORA!

12-18 URTE ARTEKO GAZTE NAFARREN
INSTAGRAM BIDEZKO ARGAZKI LEHIAKETA



ARGAZKIA ATERAI!
Kanaka edo taldean,
hankaz gora jarri!



TGO INSTAGRAMERAI
eta jarraitu
@hankazgora2015
perfila



ETIKETATU!
Argazkia #hankazgora!
traoalarekin etiketatu
eta euskarazko
izenburu bat jarri



IRABAZI!
Argazkiak onenaren eta
argazkiak bozkatuenaren
egileek, bakoitzak 500 euroko
bono saria jasoko dute



OLERKIA

Ez naiz konforme,
ez naiz seguru,
ez naiz demonio, ez naiz aingeru
Izatekotan,
nahi nuke,
poterearen zirikatzaile,
justizia eskale,
kontzientziak aztoratzen,
dituen asuna,
eta lagunaren laguna

Joxe Jabier Elizalde



7 ESPAINIARRETIK 6K, SOMATZEN DU EKONOMIAREN BERRESKURAPENA



Risoterapia-abrazoterapia ikastaroa

PEPA HARIANAS RUBIOREKIN

Lekua: Basauruko Kultur Etxean
Data: Otsaila-martxo (ostirala edo
igandea)
Ordua: Aukeratzeko, arrotaldeko
Nerentzat: Emakume eta gizonezkoak

IRABIPENA: 10 euro.
PREZIOA: 15 € (dirua ez da izanen
ostepoa ikastaroan parte hartzeak,
kontzultak)

Euskara Iruñerrian "ikusten"

Hamazazpi urte igaro dira Elizondon hasi zirenetik eta orain Iruñerriara egin dute salto. Leiho berri bat irekitzen zaio euskarari, non eta hiriburuan. Baztanen jasotako esperientzia kazetari berrien ilusioarekin nahastuz eta euskalgintzaren laguntzaz egingo dute aurrera. Hemendik gutxira gure eskualdean ere telebista hau ikusteko aukera egon daiteke. Ongi etorri, Xaloa Telebista.

Proiektu garrantzitsu honen berri iazko udazkenean izan genuen lehenengo aldiz. Maitte Iturre Udaltzako lehendakariordeak aurkezpen prentsaurrekoan esan zuen "euskaraz ikasi ahal izatea, Administrazioarekin harremanak euskaraz eduki ahal izatea, euskarazko hedabideak erabili ahal izatea" lehentasunezko kontua zela. Udalbiltzaren partetik laguntza jaso bazuten ere, finantziarioa herrikoia izan da, 50.000 euro lortu baitzituzten jendearen laguntzari esker. Otsailaren bian hasi dira albistegia emititzen. Pozik daude, "baliabide gutxirekin zerbait polita" egin nahi dutelako. Joseba Igarabide telebistako zuzendariak dioenez, "prozesu baten aurrean gaude, jendeak bizkor-bizkor joatea nahi badu ere, mantso doana, baina aurrera goaz".



Aurkezpenaren irudia. Erdian, Joseba Igarabide.

Gure eskualdean telebista hau ikusteko aukera, geografiaren arabera izanen da: Elomendin dago emisore nagusia, eta Xaloa telebistak Ezkaba menditik bidaliko du seinalea Elomendira. Horrek esan nahi du, teoriarik behintzat, baldin eta zure etxeko antena Elomendiko gainean dagoen zentro igorlora orientatuta baduzu, posiblea izanen duzula kate hori ikustea. Halere, hurrengo asteetan frogak egingen ditugu adituekin emisio aukera hau konfirmatzeko.

Nafarroako Gobernuaren oztopo eta utzikarri gaitetik, Igarabidek azpimarratzen du, garrantzitsuena Iruñean euskara ikusi ahal izanen

dela. "Hori da gehien eman ahal duguna". Bestalde, elkarlanean aritzeko guztiz zabalik daude: "Pertsona, elkarte zein erakundeekin aritzeko prest gaude. Jendeari bere pulpituia eskainiko diogu".



Xabier Sobrino aurkezlea, Berriozarko Eguzki plazan.

Programazioa

Eider Madinak Iruñerriko berriak emanen ditu albistegian, astegunetan, 15:00etan eta 20:00etan. Magazinekin otsailaren 9an hasiko dira —11:00etan eta 17:00etan emanen dituzte—. Arratsaldeko magazinean gai zehatz bat landuko dute egun bakoitzean: astelehenetan kirola, astearteetan udal kontuak, asteazkenetan kultura, ostegunetan ekonomia eta politika, eta ostiraletan aisialdia. Xabier Sobrino elizondorak aurkeztuko du saioa.

ETBri "itzalik ez"

Nafarroan ez da posible telebista euskaraz ikustea, seinale digitalean, behintzat. ETB 3 (gazte eta haurrentzako programazioa duena) ikusteko mobilizazioak aldizkari honen orrietara ekarri ditugu behin baino gehiagotan. Xaloa Telebistari baimena emateak, Nafarroako Gobernuaren partetik, ETBri nolabaiteko itzala egiteko estrategia ez ote den galdetuta, Igarabidek dio ez diotela "inolako itzalik" egingen. "Planteamenduan eta ahalmenean bi proiektuek ez dute zerikusirik. Gurea hurbileko telebista bat da, ahalbide gutxiarekin egingen dena. Ez diogu inori itzalik egingo".



IÑAKI ATXA, TEKNIKARIA

Elizondotik dator egunero-egunero gazte hau: "Prozesua ongi doa, mantso. Hilabete baten bueltan dinamika hartu eta martxa polita hartuko dugu, kontuan hartu beharra dugu, ekipoa berria dela... Iñakik 16 urte darama Xaloe lanean, "beteranoa" sentitzen naiz. Etxetik hurbil erosoago lan egiten dela dio; baina, aire aldaketak, tarteka, ondo datozela onartzen du: "erronka berria da niretzat".



NOLA SINTONIZATU

Zer egin behar da telebista hau ikusteko? Gaur egungo telebista gehienetan automatikoki egiten da kate gehien bilaketa. Horretarako mandoa hartu, "menu" tekla sakatu eta bertan "konfigurazioa" edota "instalazioa" teklak sakatu behar dira. Automatikoki hasiko da bakarrak bilatzen eta minutu batzuen ostean zerrenda luzea izanen duzu pantailaren aurrean. Pazientzia puntu bat izan behar da, frekuentzia guztietan bilatzea luze hartu dezake eta, "scan" hitza dagoen bitartean, lasai utzi lanean trastea. 38 kanalean aurkituko duzu Xaloa Telebista!



EIDER MADINA, AURKEZLEA


Argia aldizkarian praktikan 3-4 hilabete ibili nintzen, eta gero erreportajeak noizean behin egiten, han-hemenka lanean ibili naiz orain arte. Iruindar honen iritziz, "oso aukera polita" da aurrean dutena, nahiz eta onartu urduri daudela: "atzo lehenengo saioa egin genuen, guk ez dugu ikusi ere egin, pentsa... Albistegi bakarra egingen dugu egunero eta birritan emitituko da. Aurkezle gisa lehenengo esperientzia da, eta oraingoz platóan egonen naiz. Lantalde gaztea da, Baztanen ibiltzen direnak Xabi Sobrino eta nirekin nahastuko gara, oraindik, egia esan, ez dugu elkar ezagutzen ere."



EUSKARARI OZTOPOAK

ETB telebista berrietan ikusi ahal ez izateari buruz, horrela idazten zuen Martxelo Ota mendik, Berria egunkariako zuzendariak: "Nafarroa, beste behin, mundu mailan lurralde arraro bat izatearen arazoia, nola ez, herrialdeko gobernuaren alderdian, UPNn, topatzen dugu. UPNrentzat Nafarroak Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin dituen loturak etetea estrategikoa da. Eta euskararen normalizazioa oztopatzea, are estrategikoa. Hezkuntzan zonifikazioak ekarritako arazoak adibide garbi dira. Euskaraz aritzen den telebista modu normalean ikusten ez uztea estrategia horretan kokatzen da."

Anaitasuna bete euskaltzale!



Maite Inda Larrainzarren

Maite Indak, Kontseiluaren izenean, ilbeltzaren 27an Larrainzarren egitasmoa aurkezteko egitiko bileran.

Kontseiluaren Nafarroako Mahaia 2009an sortu zen Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politika erasokorrari aurre egiteko. Egoeraren larria aztertzeke eta erantzun bateratua emateko asmoz AEK, IKA, EHE, Topagunea, Sortzen eta Ikastolen Elkarteak biltzen hasi ziren; horren emaitza da 2010ko maiatzean Iruñean eginiko manifestazio erraldoia; beste manifestazio batzuk ere egin dira, baina orain beste formatuko ekitaldi bat egitea erabaki dute, eta horretara dator "11 egun dinamika" ekimena.

Behin eta berriz erakutsi dugu nafar askok eta askok euskaraz bizitzeko nahia, eta horretarako beste aukera paregabea izanen dugu apirilaren 25ean Anaitasuna pabiloian. Asmoa da pabiloia lepo betetzea aldarrikatzeko berriz ere berez eta legez euskaraz bizitzeko eskubidea dugula eta, batez ere, euskaraz bizi nahi dugula. Indar erakustaldi bat izanen da. Hala adierazi zigun

Herritarrak daude ekimen horren erdigunean, eta euskaraz bizitzeko nahia izanen du ardatz. Ekitaldi emozional eta berritzailea izanen dela aurreratu zigun Maitek; baina, hortik aurrera, sorpresa faktorea izanen da eragin nahi duten efektua lortzeko elementu bat. Hiru hilabete ditugu aurretik giroa berotu eta Apirilaren 25ean euskaltzale guztiok Anaitasuna betetzera animatzeko.

Etxalekuko ostatuak loteria sari bat banatu zuten

Lehenengo sari hiru zenbakiri esker "bailarako jende asko" saritu zuten



Urtero zenbaki berdinerak jokatzeko dute, eta aurten zorrea izan dute. "Gabonetako zozketan ez ezik Erregetakoan ere saritxo bat izan genuen. Bizilagun batek baino gehiagok esan digu aurten zorrea eman diegun bakarrak gu izan garela". Imozko herri honetako ostatuak nagusi den Maritxu "oso pozik" dago izandako zorrea dela eta. Dezimo bakoitzak 200 euro inguru eman ditu, oso banatuta dagoenez, ez da inolako altxorra izan, baina askori zerbait tokatu zaie. "Herriko guztiak hartu egin zuten dezimoren bat, batzuek bizpahiru".

Herriko bizilagunak gain, zonaldeko askok hartu zuten: Oskozko zenbaitzuk, asteburuetan datorren jendeak edota kanpotarrek ere. Kalkuluak egiterako orduan 350 bat dezimo saldu dituzte. Maritxuren alabak bere garaian 7 zenbakian bukatzen zuen txartel bat aukeratu eta beti jokatzeko dute horretara. Espero dugu zorrea askotan banatzea, Maritxu!



Korrika martxoaren 20an pasako da

Ultzamako Bentetatik sartuko da arratsaldeko ordu biak aldera



Bi urtean behin, eta hemeretzi aldiz gertatu den bezala, badator Korrika! Urepele eta Bilbo elkartzeko dituen elkartzeko ekimen hau martxoaren 19tik 29ra ibiliko da Euskal Herri guztian zehar. Osotara ehunka badiu ere, gure eskualdean hogeitabi kilometro "besterik" ez ditu egingo. Belateko errepide zaharretik sartuko da aurtengoa, eta hurrengo ibilbidea izango du: Ultzamako Bentak, Arraitz, Alkotz, Iraizotz, Gerendiain, Gelbentzu (16:20), eta Markalaindik Iruñea aldera egingo du euskararen aldeko lasterketak.

Ordutegiak betiere behin-behinekoak badira ere, arratsaldeko ordu bietan hasi eta bostak inguru ibiliko da jendea lasterka gurean. Antolakuntzatik azpimarratu nahi dute oraindik ere kilometroak erosteko aukera dagoela (425€ bakoitza) eta laguntzeko beste modu interesgarria Korrika-laguntzailea izatea dela; 12 euroko bono baten truke, laguntzaile txartela, zenbait beharpen dena eta zinemetan eta "pin" bat opari izanen duzu.

Antolakuntza taldeak azpimarratu nahi izan digu otsailaren 3an egingo dutela hurrengo bilera, Aizarozko Kultur Etxean, arratsaldeko 5etan. Anima zaitetz Korrika laguntzen!

Kultura sustatzeko elkarlanean

Korrika antolatzeko eta euskarazko ekimenak sustatzeko biltzen hasi dira

Beste lekuetan desberdin funtzionatzen badute ere, gurean bidea nolakoa den aspaldi dakigu; urte luzetako esperientziaren ondoren, elkarlana eta auzolana biltzen hasi dira agente kultural ezberdinak. Ametza Kultur elkarteak modua. Gure eskualdeko

egoera kontuan hartuta (bailara ezberdinak, distantzia handiak, herri txikiak...) eta koordinazio hobe bat lortzeko nahian biltzen hasi dira agente kultural ezberdinak. Ametza Kultur elkarteak sustatu nahi duen taldea

da hau, gurean egiten diren ekimen kulturei haize berri bat emateko ideiarekin. Horretarako pasa den urtarrilaren 15ean elkartu zen Larrainzarren Bentan lantalde berri hau: bailare-tako euskara zinegotziak, Ametzako jendea, Gizarte

Zerbitzuetako ordezkariak eta partikularren bat bildu ziren. Eskualdean antolatzen diren ekimen hauek hobeki koordinatzeko eta jardura hauek herritarra-goak egiteko lanean jarri dira. Korrika dute beraien lehenengo helmuga.

Behin-behineko administrari berria



Javier Elizalde ilbeltzaren 7an hasi zen Basaburuko udal-txetan lanean amatasun baja bat betetzen. Asteko egunetan Eratsundik dator autoan: "Neguan Gorostietako gaina pasatzea erraza ez bada ere, neguko gorpilak jarrita hobeki nabil". Ordu erdi inguru hartzen du etxetik lanera, eguraldi aldaketek hamar bat minutu gora behera atzeratu badezakete ere. Aurretik lan esperientzia Nafarroako Gobernuan, Osasunbidean, eta enpresa pribatuan metatu du, baina lan

finkoa aurkitzea zaila dela aitortzen digu: "Zaila dago leku finkoa izatea, deialdietara jende asko aurkezten da eta normalean lehenengo postuetan geratu banaiz ere "atearen aurrean" geratzen naiz".

Orokorrean begiratuta, egoera "konplexua" dela dio, mozketek, batez ere, atzera pausoa ekarri dutelako: "Iazko martxoan bukatu zitzaidan azken kontratua, aldaketa batzuk izan zirela eta nire plaza kendu zutelako, geroztik hona, langabezian. Enpresa pribaturara begira jarriz, "norbaitek ezagutzen ez baduzu" egoera zaila dela dio.

Pozik dator lanera, udaletxean "denetarik" egiten duela: "hiri handietan atal finkoetan lan egiten duzu, bailaran herri txikiak direnez, hirigintza, erroldak, urak, kontribuzioetan lan egiten duzu... ezin aspertu, aberasgarria da".

Saharari buruzko hitzaldia eta loteak Atetzen

Zaila egiten zaigu askotan eskualde guztiko berriak jasotzea, baina saiatu, saiatsen gara. Kasu honetan Ateztik Irelarre Kultur Elkarteak antolatzen dituen ekitaldien berri eman nahi dizugu. Aurreko urtarrilaren 31n Aroztegiko Xahutegi elkartean “Herri baten biziraupenerako borroka” izenburua zuen hitzaldia antolatu zuten. Sahararen egoerari buruz hitz egin zuen Luchaa Saleh Saharako Gazte Batasuneko kideak. Saleh, Kanariar irleetatik gurea hurbildu zen hitzaldiak eskaintzera.

Kultura arloan jarraituz, komentatu digute otsailaren 21ean ospatuko dituztela ioteak bailaran. Herriz herri puska-biltzea egingo badute ere, Eritzen elkartuko dira bazkari, afari eta dantzaldia egiteko. Festa hau alaitzeko Joxe Angel orkestra gizonaren musika izango dute. Horretaz gain, nequaren hotza gainditzeko edo usadio moduan urtero “tramankulu” bat erretzen dute. Iaz “mozketak” sutara joan ziren, eta Irelarretik esan digute oraindik ez dutela erabaki zer erreko duten aurtan.

MEMORIA HISTORIKOA

Gobernuaren utzikeria salatzen dute fusilatuen elkarteak

Erripako hilerrian 2012ko udaberrian eta Orgiko basoan urte horren bukaeran egon ziren. Odieta hilerrian hezurdura bat aurkitu zuten eta Ultzamako basoan 17 pertsonen gorputza bilatzen bazen ere, ez zuten deus aurkitu. “Denbora agortzen ari da” dio Olga Alcegak, Nafarroako Fusilatuen Familiako Elkarteako presidentea denak,

denbora joan ahala, “bizirik geratzen diren pertsonen memoria ere hiltzen doa”.

Memoria Historikoaren Legea onartu zenetik, Nafar Gobernuak “euro bakar bat ere” jarri ez duela salatzen dute. “Haien aitzakia aurrekontuen luzapenean dago; baina guk badakigu lehentasun kontua dela”. Alcegak eskertu egiten du orain arte egin diren

“keinuk”, baina elkarte hauen dako lehentasuna hobiak aurkitzea da eta bizirik geratzen den jendearengandik informazioa lortzea.

Erripako hilerrietik atera zuten hezurduraren identitatea ez dugu momentuz jakingo ezta ez dira berriro bilatuko Orgiko basoan lurperatuak dauden hamarnaka pertsonen hezurdurak ere.

Edateko ur zikina Gartzaronen eta Ihabenen

Lehenengoan Gartzarongo lagun batek komentatu zigun euria egiten duen egunetan, ura zikina ateratzeko txorrotatik. Normalean garbia ateratzen da, baina zaparrada botatzen duenean Ihabenen eta Gartzaronen zikina ateratzen da; horregatik egun horietan behintzat, botilako ura erosi behar. Bailarako Udalean honi buruz galdetuta, konfirmatu egin digute fenomeno hori gertatzen dela; halere, azpimarratzen dute, bi hilabete behin egiten diren azterketetan, Mankomunitateak uraren kalitatea “kontsumigarriatza” definitzen duela. Basaburuko alkateordeak argitu nahi izan du orain arte ez direla horren inguruan kezarik jaso eta arazo hau konpontzeko irtenbidea konplexua dela: “Aizarozko ur-biltegiak Udabe-Beramendi hornitzen du, eta ur hori Gartzarona eta Ihabena eramatea oso zaila ikusten du “obraren koste eta tamainarengatik, besteak beste, erreka gainditu beharko litzatekeelako”.

Frutazko jogurt berriak salgai

“Postres tradicionales de ultzama” enpresak produktu sorta berria aurkeztuko du hemendik gutxira. Bere izenak berak dioen bezala, Ultzamako enpresa honek erabiltzen dituen osagaiak eta egiteko moduak tradizionalak dira, baina orain kontsumitzaileei erakutsi nahi diete berrikuntzarako aukera ere badutela. Ekoizten duten guztia zonaldeko ardien esnearekin egiten jarraituko dute; eta, horretaz gain, haien jogurtek fruta exotikoen ukitua izanen dute: papaia, marrubia, mandarina eta ahabiaz eginiko marmeladek zapore gozoagoa emango diote postre hauei. Argi dago papaia hauek ez direla hemengoak; halere, enpresatik azpimarratu nahi izan dute aukeratutako marmeladen kalitate altua: “bidaltzen diguten produktua ona da oso, aukeraketa prozesu luzea egin genuen desiratzeko genuen zaporea aurkitu arte”. Postre berri hauek 80 gramoko basoetan salduko dira. Frutazko zapore berri hauek merkaturatu badituzte ere, enpresatik gogorarazi nahi dute betiko jogurtak (naturala eta azukrea daramana) saltzen jarraitzen dutela.

Eurovelo: errealitate bihurtzen ez den proiektua



Horrelakoak dira batzuetan komunikabideak. Titularrak Nafarroa Eurovelo sarean sartu zela zioen.

Albiste osoa irakurriz gero, ez zuen inongo aipamenik egiten horri buruz. Europa mailako bizikleta bide sare erraldoia da Eurovelo.

Aipamena egiten badugu da posiblea delako gure eskualdetik pasatzea, Imotz eta Basaburutik. Turismo sostengarria sustatzeko ideia interesgarria izango litzateke: bide luzeak egiten duten txirrindulariak izango lirateke erabiltzaile ho-

riek. Kontua da momentuz errealitatea baino desira bat besterik ez dela. Imozko alkate den Josean Iturralde egin diren pare bat bileraetan egon da eta proiektu hau gauzatzeko oraindik geratzen dela dio: “Nafarroako Gobernuoek ideia polita zela esan zuten, baina finantzazioa ez dago garbi eta ez dago ezer lotuta.

Proiektu honen alde interesgarrietako bat

dagoeneko eraikia dagoen mendi bideen sarea erabiliko lukeela da, ez dela bide berriak eraiki behar, halere inbertsioa eta planifikazioa behar da: “Gobernuoak ez dira bustitzen, guk eske- ma aurkeztu genien eta erantzunik ez”.

Diario de Noticias egunkariak Nafarroako Euroveloren aldeko apustua egiten zuela zioen, ikusi beharko da nork eta nola egiten duen.

Araozko errepidean: Elurak eta izotzak zaildu egin du trafikoa behin baino gehiagotan



“Negua bat-batean ailegatu da”. Bati baino gehiagori entzun diogun esaldia da, ilbeltza bukaerako elurteak zirela eta.

Elurte handia izan da oraingoa, baina hilabete osoan izan dira arazoak errepideetan.

Gure eskualdearen egoera geografikoa dela eta, asko izan dira gertaerak: errepide-

mozketak, irristaketak, ateratzeak... Halere, azpimarratu beharra dago zorionez istripu larririk ez dela gertatu.

Deigarriena, ikusgarritasun aldetik begiratuta, Auza aldean, Alkomorro terminoan hilabete erdialdean gertatu zena.

Beti aipatzen dugun moduan, kontuz errepidean, arduraz gidatu!

Euskal Herriko mus txapelketa aurrera



Gartzarongo irabazleak.

Gaur egungo umeak telefono eta makinekin jolasten badute ere, betiko jokoek

oraindik ere osasuntsu daudela erakutsi du mus txapelketak, berriz ere. Gure eskualdean Ultza-

man eta Basaburuan jokatu ziren partidak honako emaitzekin; iraziozko ostatuan urtarrilaren 24an jokatu zen saioan Imanol Iragik eta Asier Larraiozek irabazi zuten.

Basaburuan, berriz, hiru herri desberdinetan jokatu ziren kanporaketak; Gartzaron, Aizarotz eta Jauntsarosen. Gartzaronen urtarrilaren 17an jokatu zuten zazpi bikotek, eta Eneko Legarrak eta Alberto Arangoak irabazi zuten. Aizarotzen, lau bikotek jokatu zuten il-

beltzaren 18an eta Tomax eta Markel Iurramendik jaso zuten finalera jokatutako pasea. Bukatzeko, Jauntsarasko Apeztegi-berri tabernan 12 bikote aritu ziren norgehiagoka, giro ederrean. Eñaut Martikorena igoarrak eta Patxi Telletxea orokietarrak alde batetik eta udabeke Miguel Loidik eta Idoia Auzak bestetik egin zuten aurrera.

Nafarroako finalera pasatu dira bikote guzti hauek, otsailaren 21ean Iruñean jokatuko dena.

Irratimaleta prest dago jada!

Esan Erran irratia estudio mugikor bat estreinatzen du



Hilabete luzeetako lanaren ondoren, proiektua azkenean aurkezten dugu. Irratia irratitik ateratzen da eta hemendik aurrera edozein egunetan, edonon aurkituko duzu gure esataria edonondik emititzen; bailaretako eskoletako patioan, zure

herriko ostatuan, Kultur Etxean edota zure etxean ere emititu dezakegu! Gure helburua irratia jendearengana hurbiltzea da, eta horretarako edozertarako prest gaudete; badakizue zer esaten zen Profeta eta mendia-zen inguruan... Egurrezko maleta po-

lit batean sartzen den estudio mugikor bat da Irratimaleta: internet bidezko konexio baten bidez munduko edozein lekutik emititzea ahalbideratzen duena.

Urtarrileko aste hauetan emisio probak egiten aritu gara dena ondo funtziona dezan; momentuz argi eta garbi entzuten da, arazo handirik gabe. Ultzamaiko Udalak emandako diru-laguntza batzuei esker aurrera atera dugu proiektu hau; materia-la berria erosi, maleta eraiki, lan informatikoa egin... Azpimarratu nahi dugu erabili ditugun informatika programak

“askeak” direla, dohai-nik erabili daitezkeenak. Esan Erran irratian erabiltzen ditugun programa guztiak horrelakoak dira, “software libre” mugimenduaren barruan daudenak.

Hemendik aurrera aro berri bat irekitzen da irratia bizitzan; kalera atera eta mendira igotzen ahal gara emititzen dugun bitartean. Gonbidatu nahi zaitugu gurekin kafea hartu eta irratsaioa egitera, edota bazkaria prestatzen duzun bitartean errezetak gurekin elkarbanatzera edota zergatik ez, autoan bidaiatzen garen bitartean irratia egitera!

Telefono bidezko euskal agenda Odietan

Euskaraz bizi ahal izateko hamaika saiakera egin behar dira. Norabide berean baldin badoaz, askozaz hobe. Kasu honetan, Odietako gazteak antolatuta egin dira telefono mugikorren bidez agenda komun bat elkarbanatzeko: antzerki, hitzaldi, kontzertu eta antolatzen diren ekimenei buruzko informazioa izateko. Gaur egun oso erabilia

den Whatsapp tresnaren bidez egin dute; talde birtual bat sortu eta horrela denak “hari” berean daude. “AEK-k astero bidaltzen du informazio korreo bat edo Aizarotzen antolatzen dituzten jarduera guztiak ere jasotzen ditugu” esaten digu sustatzaileetako batek.

Momentuz 15 bat pertsona daude talde horretan, baina posi-

blea da 100 pertsona sartzea bertan. Kontuan izan behar da doako zerbitzua dela, erraza eta azkarra.

Holako tresnak erabiltzera ohituta dagoen jendeak dakienez, talde handiak egiten direnengan, informazioa bidaltzeko besterik ez da, askotan “tontakeria” asko bidaltzen direlako eta horrek denbora galtze bat izaten delako. Euskal agenda talde honen parte izan nahi bazara, idatzi 659650624 telefono zenbakira.

Sagardotegi denboraldia hasi da

Bertako haragiaren eta sagardoaren alde apustua egin dute



Gure eskualdeak hiriburu ofizialik ez badu ere, sagardoaren munduan, zalantzarik gabe, Beruete dugu hiriburu. Ibarneko borda, Behetxoenea eta Txasenea sagardotegiek aurtengo sagardo berria estreinatu dute.

Orokorrean, aste-buruetan irekitzen dute, bazkari orduan bakarrik. Halere, telefonoz deituz gero, posiblea da afaria ere enkargatzea. Jatetxe guztietan bezala, zer jan eta edan daitezkeen da garrantzitsuena, eta hauetan gauza bera. Aurtengo

sagardo berria oraindik gozo puntu bat du, egoera normala, gauden datak kontuan izanda. Txasnekoek esan digutenez aurtengo “oso atzeratua” etorri da sagardo uzta: “oraindik sagardoa gozoa dago, denbora aurrera joan ahala zaporea lehortzen joango da”. Sagardo ekologikoaren alde apustua egin badute ere, metodo honekin sagarra garestiago ateratzen dela diote.

Behetxoeneako sagardoa oraindik ere gozoa dago; hala ere uzta “normala” jaso dute. Hauen apustua bertako

haragian dago: “Beruete, Senosiain edota Garzarondik hartzen dugu haragia. Norbaitek deitu eta eskaintzen dizu haragia”. Bestela ere, Iruñetik ekartzen dute, “txuletoia bi euro garestiago ateratzen da, baina kalitatea nabaritzen da, oso goxoa dago, jendeak errepikatzen du”. Sagardotegi horretako langilea den Inaziok azpimarratu nahi izan digu bertako ekonomia mantentzen lagundu behar dela: “Dirua hemen utzi behar da”.

Askotan hitz egiten da sagardotegian jaten

den haragiaren jatorriaz. Ibarneko bordatik azaldu digute aste hauetan bertako haragia dutela eta beste batzuetan kanpotik ekarri behar izaten dutela: “Martutenen hartu ditugu hiru zinta, baina bestela Erdialdeko Europatik ekartzen da askotan”.

Bestetik, Ibarneko bordakoak dira aste-bururo bazkarietan eta afarietan irekitzen duten bakarrak. Jakinda nolako kalitate aurkituko duzun, ez da aitzakiarik onartzen hauetako batera, edo hiruetara bazkaltzera edo afaltzera joateko!

Iritzia

Kromoak



Anjel Lertxundi

Santiago Arrospi-de kartzelan sartu eta Luis Barcenasi alfonbra gorria jarri kaleraino. Presoen aldeko manifestazioaren ondoren presoen abokatuak atxilotu. Orain, legea bete beharrenean aitzakia hauspotu, antzestu beharra baitago demokrata itxura; geroxeago, legea manipulatu biktimak manipulatzeko.

«Ez zakitek ezta disimulatzen ere!». Laguna oker dago: ez dute disimulatzeke asmorik, aitzitik baizik. Ageri-agerian utzi nahi dute bata bestearen ondorioak direla eta ez kointzidentziak. Nahita dira zarpail baldarrak, apropos manipulaten dute justizia, kontzientzia osoz egiten diote iseka ordenamendu juridikoari. Nork agintzen duen gar-

bi uzteko eta ez biktimen ondran. Berdin zaizkie biktimak, beren ingurukoak bezala berengandik oso urruti daudenak ere. Hauteskundeak hurbil, inkestetekin zurbil gelditutakoan hasi dira ondoen dakitena egiten: maniobratzen.

Lotsarik ez duenak ez dauka lotsa falta disimulatzen ibili beharrik.



Irudi batean

Beti ikasten jarraitzen dugulako, Guraso Eskolak

Sustraiak, Larraintzarko ikastetxeko guraso elkarte da, ikastetxe horretan D eredia abian jarri zenean sortua. Gaur egun bost pertsona daude zuzendaritza batzordean, baina ez daude bakarrik; izan ere, beste hamar bat batzorde daude elkartearen barruan. Basaburuan, helduak parte hartzen duten talde interaktiboak sortu dituzte. Ikasketa prozesuak inoiz bukatzen ez direlako, Guraso Eskola eta talde interaktiboek buruz gehiago ikasiko dugu orain.



Hilabete honetako bileraren pare bat argazki.



Noiz eta nola sortu zen Guraso Eskola?

Hasiera-hasieratik gure helburuetariko bat izan zen guraso eskola sortzea. Egia esan, gurasoon prestakuntza beti izan da xede bat guraso elkarte honetan. Horregatik urtero hainbat hitzaldi egiten ziren horri begira. Halere, guk zerbait eraginkorragoa sortu nahi genuen. Horrela hasi zen proiektua.

Hasieran, seme-alabak DBHn zituzten gurasoekin hastea erabaki genuen. Izan ere, nerabezaroa, alde batetik, oso fase berezia eta gogorra denez, argi ikusten genuen holako eskolaren beharra eta, beste alde batetik, etapa horretan ekimen gutxi egiten zirelakoan geunden.

Proiektu horren ondorioz, joan zen ikasturtean DBHko guraso eskola sortu zen. Esperientzia oso positiboa izan zen, eta aurren beste bi guraso eskola sortu ditugu beste bi hezkuntza etapei begira.

Zein izan zen helburua?

Helburua gure ibilbidean, amatasunean eta aitasunean, konpainia eta segizioa izatea da.

Ez zen lan erraza izan. Hiruzpalau pertsona eta talderekin hitz egin ondoren, azkenean gure beharra betetzen zuena aurkitu genuen: Sara Nagore. Bera aukeratzeko, nerabeekin zuzenean lan egitea erabakigarria izan zen. Gurasoak faltatzen zitzaigun ikuspuntua berak eskaini ahal zigun. Gainera, berehala ulertu zuen zer bilatzen genuen.

Azkenean guraso eskolak une bereziak dira non kezak, beldurrak, nahiak, desirak eta abar ko-

mentatzen eta partekatzen diren. Benetan, oso aberasgarriak dira.

Zer ibilbidea izan duzue?

Guraso Eskolek ez dute ekimen berezirik antolatzen. Eskola bakoitzak bere egutegia dauka, independenteak baitira. Hala ere, hiru kasuetan hilabetean behin egiten dira saioak.

Beste jarduera batzuk guraso elkarteak berak antolatzen ditu: dantza, xakea, sukaldaritza, ingelesa, arte plastikoa, gurasoen txokoa, jaialdiak...

Psikologo batekin elkartzen zarete, nolakoak dira saio horiek?

Bi psikologo ditugu: Aser Sesma eta Sara Nagore. Sara, jada komentatu dugunez, iaztik dago gurekin, Aser berria da proiektu honetan.

Aserrek haur eta lehen-hezkuntzako guraso eskolak eramaten ditu; Sarak, bigarren hezkuntzakoak.

Biek elkar ezagutzen dute eta filosofia bera partekatzen dute. Hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu guraso eskolei jarraipena emateko.

Bi kasuetan, lehenengo saioan hara joaten diren gurasoen kezak, galderak...jaso eta horien arabera "kursoaren" nondik-norakoak finkatzen dira denen artean. Beste saioetan bi "tempo" daude. Psikologoak aukeratutakoa gaiari buruzko informazioa eman eta azaltzen du (estatistikak, datu zientifikoak, bideoak...), eta gero horri buruzko eztabaida hasten da. Askatasun osoz hitz egin dezakegu gurasoek: taldean partekatzen dena

hor gelditzen da! Ez pentsa "oilategi" bezalakoa denik! Ekarpn baliagarri eta konkretuak sortzen dira.

Bestalde, haur eta lehen hezkuntzako guraso eskoletan haurtzaindegi zerbitzua ere badago, horrela gurasoen parte-hartzea bultzatu eta bermatzen dugu.

Zer ikasi duzue denbora honetan?

Batez ere bi gauza. Bata da errespetua heziketa onaren gakoa dela. Bagenekien! Jakina! Baina, haiei esker horren kontzientzia "areagotu dugu". Bestalde, seme-alabekiko enpatia ikaragarri lantzen ari gara.



Eskola komunitatera irekitzen

Jauntsarasko eskolak talde interaktiboetan parte hartzeko epea zabaldu du berriz. Anima zaitetz!

ZEINEK PARTE HARTZEN AHAL DU: gurasoek edo bailarako edozein pertsona helduk parte hartzen ahal dute.

FUNTZIONATZEKO MODUA: gelako dinamika hautsi, boluntarioak ailegatu eta txandaka matematika eta hizkuntzak lantzen dira. Modu ludikoan, talde lana uztartuz.

HELBURUA: Amerikan sortu zen duela hamarkada batzuk, diskriminazio arriskuan zeuden taldeak laguntzeko eta, horrela, curriculuma hobetzeko. Halere, hemengo errealitate ezberdina da oso, eta parte-hartzea da helburu orokorra. Nafarroan, orokorrean, hezkuntza komunitateetan txertatzen da ekimen hau. Basaburuko eskolan ildo jarraitzen badute ere, ez dira horren parte.

TESTUINGURUA: Basaburua ingurune mugatua da, eta guztiok dakigun bezala ez dago hirigunerik. Hiri edo herri handietan, jende eta talde aniztasun handiagoa dago: suhiltzaileak, elkarteak, kirol taldeak... Ikasle ohiak ere etortzen dira holakoetan askotan. "Gurean autobusak behar harko genituzke, haien eta gure ordutegiaren artean koordinazio lan handia egin..." Oihanzabal eskolatik esan digutenez, hirugarren urtea da ekimen hau aurrera ateratzen dutela eta aurren haur hezkuntzara zabaldu nahi izan dute.

FUNTZIONAMENDUA: saio normal bat honelakoa litzateke, gela hiru talde txikitik banatzen da,

hauetako bakoitzean heldu bat dago; 15 minutu inguru jardura bat egiten aritzen dira; denon artean liburu bat osatu, buruketa bat egin...; ordu laurdena bukatuta, ikasle taldea hurrengo txokora pasatzen da. Ikasleen maila kontuan hartzen dute jarduerak prestatzeko orduan. Aurren 15 egunean behin, matematika saioak egiten dira.

TEORIA: ezagutza elkarren artean trukatzeko metodo honek ez du aurrez ezarritako formatu edo sekuentziaziorik, baizik eta ikasleek berek ezartzen dute haien esperientzietatik abiatuta. Gehienetan, ikasketa jakin bat egin duten haurrek ematen dituzten azalpenak irakasleek berek ematen ahal dituztenak baino askoz ere argigarriak izaten dira. Ikasleek hizkuntza hurbilagoa erabili ohi dute eta ikasteko esperientzia ere go-goan izaten dute; hortaz, askoz hobe azaltzen dizkiete ariketak gelakideei" (Flecha y Puigvert, 2002:s.p.).

Horrela curriculumaren arabeko edukien koherentzia bermatzen da, baina baita helburuen ebaluazio zuzena ere irizpide tekniko eta profesionalen arabera. Gelako irakasle ardura-dunak jardura didaktikoak programatzen ditu curriculumeko helburu batzuei lotuta, saioa dinamizatzen du eta denborak koordinatzen ditu.

Talde interaktiboek bidez ez balitz, familiak, boluntarioak eta abar ezin izanen liriateke ikastetxeko funtzionamendu espazio batzuetan sartu. Ikasleak, irakasleak, familiak eta, oro har, eskola hurbiltzeko modu egoki bat da, beraz.

ANIMA ZAITEZ TALDE INTERAKTIBOETAN PARTE-HARTZERA. JARRI ZAITEZ KONTAKTUAN OIHANZABAL ESKOLAREKIN!



Danonen hertsiera protagonista baten ahotik

1965. urtean jarri zuten Danone Ultzaman, eta 1994ko azaroaren 22an hertsia behar zutela gaztigatu zitzaizen langileei. 1995eko ekainaren 30ean bukatu zen dena. Aurreko Pulunpen kontatu genuen zer bait.

Gaur protagonista batekin, Joxe Narvaez Etsainekin egon gara. Eltzaburuko semea, aita Eltzaburuko Errekaldekoa eta ama, berriz, Ilarregiko Etsain bordakoa. Berrogeita sei urte. Aspaldixkoan Auzako ostatua darama. Danone hertsia baino 4-5 urte lehenago hasi zen bertan lanean.



Hi komitekoa hintzen, ezta?

Bai, pentsa, dena hasi aurretik hauteskunde sindikalak izan ziren, ni ere komiterako hautatu ninduten. Eta hauteskunde ondoen, batzorde berria osatu behar zenean, fabrikako zuzendaritzak bilera batera deitu gintuen eta gu, ustez, lehenbiziko bilera izanen zela, nolabait lehen harremana izateko, eta bai zera! Lehen bilera izan zen errateko fabrika hertsia behar zutela.

Ultzamako ibar ederrean kokatua, esnea ere ataritan, Iruñetik hurbil, Irungo errepidea ia bertan, toki ezin hobea, eta langile bikainak...

Bai, hala da, eta gainera produkzio-kalitatea ona ateratzen zen, ekonomikoki bideragarria alde guztietatik, baina Danonek Estatu mailan zeuzkan produkzio tokiak, birmoldatzea erabaki zuen.

Zenbait fabrika kendu eta besteen artean banatu produkzioa. Eta kendu beharretako bat Ultzamakoa zela, hori erran ziguten. Erabaki finkoa eta atzera-pausorik ez zuena.

Horrelako ustekabe ikaragarri baten aitzinean, zer pentsatu zenuten? Sinetsi zenuten?

Bai, bai, gauza serioa zela agerikoa zen; garbi utzi ziguten. Horrelako kontuetan ez dago txantxetan ibiltzerik. Hala ere, harrituak, azkeneko urteetan Ultzamako plantan inbertsio handiak eginak baitzizuten, beti berrikuntzak egiten, produkzio handia, langile sartu berriak, behin-behinean, beharbada ehun lagun...Ezerk ere ez zuen ematen horrelako egoerara ailegatzen ahal ginenik. Deusek ere ez!

Komitea jakitun...langileei erran beharra!

Hori da! Hori zen bigarren pausua. Langileak deitu batzarrera, eta haiei berria eman. Ez zen goxoa izan.

Nola izan ziren hurrengo pausoak?

Enpresak, hertsia behar zuela errateaz gain, hau da, enpresa hertsia behar zela eta ez zegoela beste aterabiderik, bazuen lantokia hersteke plana egina edo egintxe. Fase batzuk nola izanen ziren, langileen-dako zer aukera zeuden...; hertsitze lanak enpresa baten bitartez egin zituen. Eta bitarteko zen enpresa honekin izan genituen harreman gehienak.

tean batasuna izanen zela.

Bai, hasieran jende guztia batera.

Hori, noizbait, borrokak aurrera egin ahala, hausten hasiko huen.

Horren aurretik enpresa hasi zen aterabide diferenteak ematen langile talde diferentei. Eskaintza ezberdinak ziren, jubilatzen ahal zirendako baldintza batzuk; beste batzuk, beste egoera batean zeudenendako. Eta jakina, hor hasten da bakoitza bere egoera aztertzen, zer komeni zaion eta abar. Gero, sindikatuen artean ere iritzi ezberdinak zeuden, borroka nola bideratu, zer egin, zein baldintza onartzen ahal zen, zein ez. Eta gero denbora,



Auzako ostatu aurrean.

denbora joaten da itxaropenak lausotzen, indarrak ahultzen...nahasten dira gauzak.

Nafarroako Gobernuaren aldetik, zer jarrera izan zen? Presio aski egin zuen?

Juan Cruz Alli zegoen lehendakari. Berarekin egin-dako bilera batean erran zigun enpresaren erabakia onartezina zela, zeuden legez aprobetxatzen zela...bere ikuspegia ez zitzaigun txarra iruditu. Gero beste batzarre batzuk egin genituen lan kontuez arduratzen ziren zuzendaritzakoekin. Harre-ra ona izan zen, baina praktikotasunaren aldetik, garbi dago, gobernu batek ez diezaiokeela kontra egin horrelako enpresa handi bati. Jakina, legea dagoena da.

Horrelako borroka batean, denborarekin langileen arteko harremanak okertzen, hondatzen, mintzen...Nola gogoratzen duk hura?

Sindikatu bakoitzak defendatzen du bere jarrera, individualismoa handia sortzen da, bakoitzak bere interesei begira, eta erran behar da, egoera pertsonalak diferenteak direla eta denek, nahiz nahi izan, ez dezaketela defendatu segun zer borroka...Erran beharra dago, hogei urte pasa eta beste perspektiba batetik ikusten dugula denok eta hainbat jarrera entendatzen ahal ditugula.

Langile aunditz eta aunditz hemengoak, lagunak, adiskideak...eta elkarrekin haserre.

Bai, hori da beharbada, txarrena. Gertatu dira eta gertatuko dira. Horrelako momentuetan bakoitzak bere kontzientziarekin hartu behar ditu erabakiak. Eta uste dut bakoitzak bere kontzientziak agintzen zion aterabidearen alde egin zuela. Eta azkenean inor ez zen konforme geldituko, denok Danonek hor segitzea nahi genuelako, baina erdietsi zen erdietsi zena.



Iraizoko herria Alkozko kaskotik. Iraizoko dermioan zegoen kokatua Danone.

Emaitzak

Ikusitakoa ikusi, erran zezakeagu, adibidez, jubilatutako zirenak edo aurrejubilazioa erdietsi zutenak, franko konforme gelditu zirela.

Bai, talde horrek zuen aterabide errazena. Gainera enpresak bazuen diru bat horretarako, diru horrekin jubilazio-plan bat egin eta adinera iristean, jubilazioa.

Eta gainerakoak?

Horretarako ere bazuen enpresak dirutza bat, eta gainerakook lortu genuen generamatzan urteen ariorako kalte-ordaina bat. Gero, beste batzuei, enpresa sortu edo autonomo jarri nahi zutenei, beste

laguntza batzuk.

Enpresak bere aldetik jarri zuen dirua, modu diferentean banatu zuen, bakoitzaren egoera eta nahia kontuan hartuz.

Horrelako egoera gogor baten ondoren, zauriak ere geldituko dira.

Horrelako egoerak traumatikoak dira, egoera pertsonalak aundizetan latzak; eta jende sutsuak ere, pizten denean, aundizetan behar ez dena erraten du edo entzuten du. Eta zauria aundizetan hor gelditzen da, hertsia gabe. Baina normalean, nahiz eta momentu txarrak pasatu, gero, buelta ematen zaio eta irakurketa ona eta baikorra ematen zaio. Eta hala behar gainera! Eta eskerrak horrela den!

Iraganetik etorkizunera doazen begiradak

“El otro mapa de Abauntz” dokumentala aurkeztuko da otsailean Iruñean

Zer gertatuko litzateke hemendik 13.000 urtera Ultzaman grabatutako dokumental bat aurkituko balute? Zertan pentsatzen zuen Abaunzko mapa irudikatu zuenak? Nola ikusten ditugu guk duela milaka urteko usadioak?

Galdera horiek eta beste asko egin dizkio urte eta erdi luzez Aitor Gametxo bizkaitarrak bere buruari. “Punto de vista” zinemaldian sari bat jaso zuen, zinemagile gazteei beraien lana ekoizteko aukera ematen diena. Sari horren baldintzetako bat denbora epe zehatz batean bukatzea zen, eta bestea, Nafarroan kokatua egon behar zela. Eta hemen sartzen da gure kobazulo ezagunena istorio honetan: “Abaunzko maparen inguruan zerbait entzuna nuen. Internet bidez bilatu eta erabaki nuen hori izanen zela nire hasiera puntua. Hortik abiatu nintzen, baina ez nuen inor ezagutzen bailaran, egia esan, Nafarroan ere ez nuen ezagun askorik”.

Eskualdera hurbiltzen hasi zen eta batez ere Arraitzen grabatu ditu eszena eta elkarrizketa gehienak. “Lehenengo kontaktua Nafarroako Museokoekin egin nuen; harria ikusi... Halere orain museoko historiaurreko atala ez dago ikusgai, obretan daude eta. Harriei buruz hitz egin ordez, Gametxorendako interesgarriagoak dira egunerokotasuneko kontuak: “aditu batek harri bati buruz esaten duena baino, taberna bateko elkarrizketa bat interesgarriago izan daiteke”. Zerotik hasi den prozesua izan da.

Zonaldeko egunerokotasun eta ohiturei begira jarri behar zen eta begirada bitxi bat bilatu zion filmari: duela 13.000 urte landua izan zen harria, modu batean ikusten badugu guk, gaur egun grabatutako filma nola ikusiko den hemendik 13.000 urtera?

Aldizkari hau idatzi zen momen-

tuan, Bartzelonan bizi den Lekeitiar gazte hau dokumentala bukatzen ari zen: “azken edizioak egiten, off ahotza sartzen, azken txukunketak egiten entregatu aurretik”. 3 denboren arteko jokoa planteatzen duen dokumental honetan batez ere Arraizko bizilagunak elkarrizketatu ditu, eta baita Gorrnzko Periko ere. Pulunpeko atal hau aprobetxatu nahi du Aitorrek azpimarratzeko irudi aukeraketa handia egin behar izan duela, filmatutako gauza asko ezin baita ordu beteko zintan sartu.

Agertzen diren gauzen artean herri txondorra egin zutenean, edo Mamiaren Eguna ospatu zenean, Orkingo zuhaitz zaharra... agertzen dira. “Azken finean bi motatako mezuak aurki daitezke; bata lokala dena, bertako biztanle eta ohiturekin; eta, bestea, unibertsalagoa, etorkizunean kokatuz edonori pentsarazi egingo diona”.

“El otro Mapa de Abauntz” dokumentala, gazteleraz grabatu dute. Iruñeko Baluarte aretoan estreinatuko da otsailaren 14an, “Punto de vista” zinemaldiaren barruan. Egun horretan ikusgai egongo ez bada ere, Aitorrek esan digu dokumentalaren iraupena luzatuko duela herrikoendako kopiak egiteko.

Nolakoak izango dira etorkizuneko usadioak? Nola ikusiko da, hemendik milaka urtera, zonalde horretan eraikitzen ari diren ur potabilizatzailea? Abaunzko kobazuloan, Paleolitikoan, arte-lanak egin zituenak, baliteke kontzientzia historikorik ez izatea, hala etorkizunean pentsatzen ari zen?

Kinada taldea ezagutzen

Etulainen kontzertua eskaini zuen talde txantrearrak

Gauzak hola gertatzen dira batzuetan: bi lagun elkartu, hitz egiten hasi... “Zeinen polita izango litzatekeen musika talde bat sortzea, eh?” Holako egoerak zurrumbilo ero batean bukatzen dira askotan, eta beste batzuetan bertan behera geratzen dira, burutik sortu eta minutu gutxitara. Badaude beste burutazio mota batzuk, denbora bat pasatzea behar dutenak, nolabait beratu behar direnak. Behar duen denbora igaro ondoren, loratu egiten da ideia, modu espontaneoan sortu dela badirudi ere, badakigu ez dela hala izan. 2013. urteko Txantreako jaietan, gaueko ordu txikietan, Gorkak eta Xubek Mirenekin egin omen zioten bezala: “Egin dezagun talde bat!”



Hurrengo hilabeteetan taldearen izaera sortzen joan zen, Kinada taldea izango zena ereiten: “gutxika-gutxika joan gara”; Napoka Hiria taldearen abestia jotzen hasi ziren, eta Kalekalde aretoan jotzeko eskatu zientenean beste bi abesti presatatu zituzten. “Kalekaldeko kontzertua garrantzitsua izan zen, bertan Oihanek ikusi gintuelako”. Alde Zaharreko biztanlea dugu Oihane, eta Miren Usoz musikariaren hitzetan “kalitatezko musikaria” den bakarra da. Gitarra-jole berri honekin taldeak forma hartu zuen: Gorka baterian, Miren eta Oihane gitarra eta ahotsetan, eta Xube ahots nagusian.

Taldea forma hartzen ari da oraindik: “orokorrean musikari autodidaktak gara, intuitiboak, eta, Oihane sartu zenean, fundamentua egiten hasi ginen; “casting”a berak egin zigun guri, eta ez guk berari. Taldearen aurkezpen ofiziala 2014. urteko martxoan izan zen Zokoa eta Akelamendi tabernetako kontzertuetan. Halere, oraindik ere prestaketa-kontzerturen bat eskaini zuten. Orduetik hona kontzertuak ematen ari dira maiz, eta Etulaingo tabernan eskaini behar duten kontzertua beraien estilo “intimistaren” adibidea da; Karmenxu Garcés kultura teknikariarekin hitz egin genuenean, Larrantzarko Bentan egitea proposatu zigun, baina lekua handiegia eta “hotzegia” iruditu zitzaigun; herri bateko taberna, berriz, askoz ere hurbilagoa”.

Aurretik aipatu bezala, jorratzen duten estiloa “rock-intimoa” bezala deskribatu dute. Bateriak erritmoa mantentzen du, eta Xuberen ahots goxoak eta

gitarra akustiko eta koroek kontrapuntu melodikoa sortzen dute.

Taldea duela gutxi sortu da, eta oraindik ere musikari berriren bat fitxatu nahi dute: “Baxulari edo Txelolari baten bila gabiltza, gure musikak puntu grabe hori behar duelako”. Badakizu, beraz, irakurle maite, baxua, txeloa edo kontrabaxua jotzea gustuko baduzu, eta talde baten bila bazaude, jarri zaitetz hauekin kontaktuan!

Iazko ekaina aldera maketa bat grabatu zuten Barañainen, Sustrai Records ziguaren estudioetan. Azken egun hauetan, beraien musika entzungai izan duzu Esan Erran irratiko “Egun-Ero” irratsaioan.

Beste talde interesgarri bat: Ain-1

Kinada taldekoek Arrasaten oholza elkarbanatu zuten beste talde interesgarri batekin: Ain-1 taldea. 2009. urtean Topaketa Feministak egin ziren eta bertan zenbait neska elkartu eta ikuskizun bat presatzen hasi ziren: musika, irudia, dantza eta olerkiak nahasiz Euskal Herri mailan orain arte ez ikusitako ikuskizun bat aurkeztu hasi ziren. Joseba Irazoki musikariak Berria egunkariaren “Badok” musika atarian egindako zerrenda batean aipatu zituen “Genesis” deitutako abestiarekin. Musika talde interesgarria iruditu zaigu, nahiz eta azken kontzertuak ematen ari diren, Ain-1 taldea bananduko baita. Beraien musika Sarean aurkitu ahal duzu. Zorte ona opa nahi diogu hemendik Kinada taldekoei eta ea kontzertu askotan ikusten garen!

JAIME AZNAR, UKRAINIAR EGOERAN ADITUA

"Gerra egoeran informazioa guda-zelai bihurtzen da

Han gertatu denaz ezer gutxi dakigu, laburpentxo bat eginen diguzu?

Ukrainiak aspaldi ari da egiturazko krisi bat jasaten, bai ekonomikoa bai politikoa; egoera hori gehiegi luzatzen ari zen, eta horrek populazioaren zati handi bat bere onetik ateratu zuen. Azken hamar urteetan gobernu aldaketak izan dira, baina ez batek ez bestek ez dute irtenbiderik ekarri; aitzitik, arazoa betikotzea besterik ez dute lortu. Ezinegon sozial horri identitate arazo bat gehitu zitzaion Errusiaren aldeko eta kontrako arteko eztabaidarekin, eta horrek europar guztioi eragiten digun maxinada piztu zuen. Europako erdialderako eta iparralderako ezinbestekoak diren gasbideek zeharkatzen dute Ukrainiako lurraldea; eta, beraz, nazioarteko gatazka bihurtu da ezinbestean.

Zein dira Espainiako medio/botereen interesak gai hauetan?

Espainiak ez du interes handirik herrialde hartan; zorionez gure energia hornikuntza nagusia Afrika iparraldetik dator. Europar Batasuneko kide izanik, nolabaiteko konpromisoa daukagu gainontzeko kideen kanpo politikarekin, baina gertakariak ezuste ezatsegin bat ekarri digute. Washintonek eta Berlinek proposatu dituzten zigorrak edo santzioak kaltegarriak izan dira nekazaritzako elikagaien sektorearendako, Errusia beste merkatu batzuk (Errusia bertakoa barne) bilatzera behartu baitute, hariak eta Errusiako ateak berriz ireki arte. Bienbitartean, esportatzaileak dirua galtzen ari dira...

Nolakoa da ailegatzen zaigun informazioa?

Gerra egoeran informazioa guda-zelai bihurtzen da. Gertakari ilunak eta ongi ulertzen ez ditugun jokabideak badaude ere, gatazkaren funtsa ulertzeko moduko datuak ditugu. Nolanahi ere, komenigarria da eszeptizismoz begiratzea Ukrainiatik iristen zaizkigun berriei. Zergatik erabakitzen da esku hartzea leku batzuetan eta ez beste batzuetan?

Jokoan dauden interesen arioren, eta galtzekoa zenbatekoa den. Argi dago Ukrainian motibazio materiala dagoela jangaietan joan-eto-riengatik, baina baita motibazio geopolitikoa, Berlingo harresia erori ondoren ekialdera zabaltzeko hasitako lehia ez baita oraindik bukatu. Errusiarrek ere badute beren agenda; haien lehenetsunak dira, besteak beste, Europako ekialdean beren eragin politiko eta komertziala

mantentzea, edo militarriko estrategikoak diren plazak kontserbatzea.

Zerbait gehiago adierazi nahi duzu?

Baten edo bestearen aldekoagoa izateaz aparte, ez dugu herri ukrainiarra atzendu behar. Lehendabiziko manifestazioen helburua zen sistema ustel eta oligarkikoa boteretik kentzea herrialdea miseria gorrian uzten ari zelako; hala ere, eskaera horiek oraindik ez dute erantzunik izan. Bestalde, gerra honen kopuruak kezka-garriak dira oso, 5.000 hildako inguru eta milioitik gora errefuxiatu. Nola sendatu behar da horrenbesteko mina? Posiblea izanen da berriz bi komunitateak batera biltzea Estatu berean? Zoritxarrez, hedabideetako titularren uholdean ezkutaturik gelditzen den errealitate gordin hori atzetzeko joera izaten dugu.



Gu jitokumeak gara, eta zer!



Arizkungo Urtsua jauregia. Hemengo maistarrak ziren bozatarrak

Euskaraz entzuten diren zenbait zabarkeriaz aritu nintzen azkeneko Pulunpen. Eta adiskide batek esan dit, nire eskritoa ez zela oso argia, ez zela, nola esan, pedagogikoa, hau da, jendeak euskararen erregelak, hitzak... ikas ditzan argiago idatzi beharra dagoela, etsenpluak jarritz eta... Alderdi horretatik begiratu arrazoi ez duenik ez diot ukatuko. Arrazoa, eta handia gainera. Baina, Ardo frexkoa sailean ez nuke euskara irakasle ari nahi, horretan nahiko motza bainaiz. Ez dut gramatikarik ikasi. Eta gainera, ez nuke pedagogia egitera mugatu nahi. Nik, beste zerbait gehitu nahi izaten diet nire azalpenei; lehenik, azaltzeko modua, hau da, kontaera. Eta gainera, nire bizipenak, hemengo jendearen pentsaera, hemengo neke eta ezinak, ...hori bai, beti gure hizkuntzaren jira-biran. Ba, gaurkoan, ea modu errazagoan kontatzen ditudan, deus balio ez duten zenbait kontu: Pulunpe zenbaki berean, berrietan, *Kinto besta* delakoan, agertu den kontu batez harritu da beste adiskide bat. Honela esan dit: *-Ze ai'aiz esaten gu kokoak gara? Gu ez gattuk kokoak, kokoak berau ttuk, motel, berau.* Ez, ez zaio batere gustatu Joxeri *koko* kontu hori. Hura irakurri zutenek badakite baztandarrek Belatetik beherakooi *kokoak* deitzen digutela; hori azaltzen nuen behintzat modu agerian berri hartan. Baina, badakizu Ultzamakoek, berriz, Ostiztik beherakooi deitzen dietela horrela? Imotzen, berriz, *Ataburutik* edo Markalaindik beherakooi deitzen diegu. Irurtzangoek, aldiz,....

Eta Aezkoa aldean badakizu hegoalderakoei nola deitu izan dieten beti? *Pardixak*. Haientzat Orotz Betelu eta beherago bizi direnak dira *pardixak*. Jakinen duzu hogeigarren mendera arte Arizkungo Bozateko auzoan *agoteak* bizi zirela. Bai, eta nahiko baztertuak eta gaitzetsiak izan ziren gainera. *Agotez* asko idatzi da. Baina, beharbada, ez duzu jakinen agoteak nola deitzen ziguten gainerakooi: *perlutak*. Bai, bai, zu eta ni haiendako *perlutak* ginen. Amodiozko hitza ote zen *perluta* delako hitz hau? Eta *manex* izena askotan entzuten izanen duzu. Izen hori mutikoei jartzen zaie garai hauetan. Baina badakizu *manexa* jende klase bat dela edo zela? Bai, zu eta ni gara *manexak*. Bazenekien? Ba, gu *manexak* gara, hala deitzen ziguten zuberotarrek; berek ziren euskaldunak, egiazko euskaldunak, gu ez, gu *manexak* besterik ez ginen. *Koko, manex, perluta eta jitokume*, hor nonbait ibiliko gara. *-Zer inporta dik horrek, beste hark esaten zidan bezala, baztandarrentzat kokoak gaituk baina Baztangoa duk esaera hau ere: Kokoak, ierrak, baña fierrak!* *-Hori ba, hori! Fierrak izatean zegok hemen kontua.* Eta hau irakurtzeko eman diot lagun bati eta esan dit, deus balio ez duten kontuak direla hauek. Eta arrazoa ere baluke, baina erantzunik gabe ez da gelditu: *-Hik bakik zer den kultura?* Mutu gelditu da. Enetzat, kultura izatea beharrezkoak ez diren zenbait gaiez jakitea da. Giza historiaz zerbait jakitea, gure tradizioez, gure herriaz eta munduko ez dakit zer. Beharrezkoak ez direnak, alegia. Kamioi bat ongi gidatzea eta bere barne sabelak nola mugitzen diren jakitera mugatzen bada gure Joxe, txofer ona izanen da baina kulturaz antzu ez ote dabilen nago. Beste asko bezala, jakina, nerone aurrena. Joxe! Gaurko kontu hauek utzi eta goazen ardo frexkotik xurruta egitera, Errioxatik ekarritako ardoa dastatu behar diagu eta.

Silbestre Deuna eta korrika egitearen moda



Mundu osoan hedatua bada ere Silbestre Deunako lasterketak Parisen du jatorria, edo behintzat inspirazioa. Brasilgo A Gazeta egunkariko kazetari batek antolatu zuen 1925. urtean lehenengo aldiz lasterketa herrikoia hau, adituek diotenez Parisko urteazharreko gau-lasterketetan inspiraturik.

Gurera duela 22 urte ailegatu zen, besterik ez. Azkenengo urteetan bezala, eguraldi dotoreak giroa alaitzen lagundu zuen; eguzkitsu eta hotza, abendu bukaeran normala den bezala, Korrikalariak eta antolakuntzakoek eguraldi ona eskertu zuten. Auzako Asier Uriarte Kirol Teknikaria "oso positiboki" baloratu du, orokorrean, lasterketa. "Emaitzak inoiz baino hobekak izan dira eta parte-hartzeari begira jendetsuena".

Modan dagoen kirola

Hirietan, herrietan eta bideetan jende asko ikusten da korrika. "Gora doan praktika da, zalantzarik gabe". Arrazoiak anitzak izan badaitezke ere, bada-go bat besteen gaineratik nabarmentzen dena: krisia. "Jendea bere kabuz kirola egiten ari du, mendira joaten dira, ibilaldi luzeak... Kiroldegi batean kuota bat ordaintzea baino merkeagoa ateratzen delako". Halere, orokorrean askoz merkeagoa izanik ere, korrikalari asko ikusten dira sekulako ekipamenduak soinean daramatzatela. Uriartek Gara egunkariko zuzendaria den Mikel Sotoren esaldi batez laburbiltzen du egoera: "Euskal Herrian gertatzen dena da hotza egiten duenean marka garesti-garestiak janzten ditugula, badirudi Groenlandian gaudela". Korrikaren munduan antzeko gauza gertatzen da, jendeak material garestia erosten duela; sekulako zapatila onak, bihotz taupadak zenbatzen dituen aparatua... "mendira joateko fraka normal batekin eta bota pare batekin, nahikoa da".

Partaidetza handia

Txikietan lau maila ezberdin daude 6 eta 15 urte artean, osotara 109 lasterkari daude. "Hauei erlojupekorik ez diogu hartzen, denak batera egite dute lasterka, zein postu geratzen diren esan eta listo! partaidetza da bilatzen duguna hemen". Asierrek azpimarratu du egitearen moda.

poko lasterkari txikiak etorri zirela, Lekunberri eta Larraundik adibidez. "Maila horiek gorantz doaz nabarmen, aurreko urteetan 60-70 baziren ere, azkenengo bi urteetan ehundik pasa dira".

Ibilbide parekidea helduetan

Duela pare bat urte, Amaia Zalba Berdintasun teknikari zela, proposamen bat egin zuen lasterketa honetan emakumeen partaidetza sustatzeko: ibilbide motzago bat egin. 8 kilometroko lasterketa egiteko prestaketa maila bat behar da, eta erabaki zuten 4 kilometroko ibilbidea planteatzean errazago izango zela jendea animatzea. 8 kilometroko ibilbidean 102 lasterkari bildu ziren, eta 4 kilometrokoan 24. Kirol teknikariak azpimarratu nahi izan du 24 horietatik 14 emakumeak izan zirela. Berriozaren ari da orain lanean Amaia, eta hemendik zoriondu nahi izan du, helburua bete delako. Horretaz gai, bi ibilbide ezberdin egotean errazago izan zen helduei denborak hartzen, 4 kilometro korrika egin zutenak azkarrago ailegatu ziren eta. "Hamarnaka pertsonari denbora batera hartzea ez da lan erraza. Denbora neurtzeko sistema informatiko konplexu eta garestiakoak daude, baina lasterketa honen izpiritua herrikoa da, eta horrela mantendu nahi dugu".

Marka onak

Aurten markarik onenak izan dira, errekorra. Antolatu diren 22 lasterketen markak ez ditugu gure esku; baina, Uriarteren ustez, aurten errekorra hautsi egin da: "antolatzen daramadan 8 urteetan Mikel Beuntzak irabazi du, eta aurten lehenbiziko aldiz 25 minutu baino gutxiagoko denbora egin du". Eskualdean korrikalari erreferenteak ditugula azpimarratu du: "Mikel Beuntza, Xabier Villava eta Aitor Iraizotz hortxe daude, nahiz eta Iraizotz mendi-lasterketak egiten dituen". Gizonezkoak ez ezik emakumeetan ere korrikalari finak daude gurean, Vanesa Pachá adibidez.

Periko Zunzarren, Gorrantzko biztanlea eta arotza



"Diseinu ezberdinak egiten saiatzen naiz"

2012. urtean, beste askok bezala, lanpostua galdu egin zuen. Betidanik zurarekin lan egin du gaztetan tailer batean aprendiz hasi baitzen. Orain bere kasa egiten ditu konponketak, muntaiak eta altzairuak diseinatu. Eskualdean bizi denetik bizitza kulturean inplikatu izan da, argazkigintzan zalea da; eta nahiz eta azkenaldian lan berria dela eta, "alboratuxeagoa" duen, ostiral kulturalak ez ditu galtzen.

Nolatan hasi zinen holako lanekin?

Lan egiten nuen enpresan arazoak 2010. urtean hasi ziren 7 kaleratzeekin. Bi urte geroago beste zazpi ginen kaleratuak. Urtebete langabezia egon ondoren, behin behineko lanak izan ditut enpresa desberdinetan; beraz, kontratuetan jarraitasun falta ikusita, erabaki nuen autonomo bezala lan egitea eta, besteak beste, altzairuak instalatzen ditut.

Hemen gauden tailer honetan makineria baduzu behintzat...

Denetarik egiten dut. Bizi naizen egoera aldakorra ikusita, aktibo egon behar; hila-bete batzuetan lanez gainezka nago, beste batzuetan lasaiago, beste aste batzuetan armairu hauek eraikitzen aritzen naiz... Iruñerria aldean horma-armairuak muntatzen ditut edo almagaztetik gauzak hartu eta etxeetan jarri, baina egia esan, gehienbat zonaldean lan egiten dut, kanpoaldean baino. Eskualdean batez ere erreformak, konponketak, altzariak berritu, atek konpondu, kristalak aldatu... holako lanak egiten ditut. Hemengo etxeak oso handiak eta zaharrak dira.

Jaiotzez iruindarra zara...

Emaztea hemengoa da, eta 1996. urtean hona bizitzera etorri nintzen. Maztartogia konpondu ondoren bertan bizi gara. Bailara honetan oso gustura egon naiz beti, eta aurreko lanean gustura nengoen ere, ez pentsa. Adin batera ailegatzen zarenean, segurtasun bat izateak garrantzia du.

Gure aurrean dagoen armairu eder hau zuk egiten ari zara...


Bai, lan bat eta bestearen artean nagoenean eraikitzen ditut holako altzariak. Horrela denbora hobeki aprobetxatzen dut. Nik neu diseinatzen ditut, hemen dudana hau bezala. Orain arte holako bi egin ditut momentuz, eta estilo polit bat ematen saiatzen naiz. Kasu honetan atzetan fotografia bi jarriko dizkiot altzari honi. Fotografia horiek lore batzuenak izanen dira, ateko koloreekin bat egingo dutenak. Erabili dudana zura gaztainondoarena da, baina zuritu egin dut. Tiraderak tindatuak daude. Diseinu ezberdinak egiten saiatzen naiz. Lehen aipatu dizudan bezala, egiten dudana bigarrena da. Aurrekoa, Urritzolako Rogelioren dendan, Atarrabian, dago ikusgai. Denda Sabaia deitzen da.



Elurra irudietan



Elurra irudietan





KIRIKA FM

Bizi garen munduei begira

Elurre Iriarte Arizkundarraren lehendabiziko liburua duzue KIRIKA FM; Baztango Metaziri gizarte eragileak plazaratutakoa. Eta, lehenik eta behin, esan eta azpimarratu behar da, ez dela modu ohikoan idatzitako liburua. Izenburuak, hatz erakuslez adierazten duen bezalaxe, FM irrati uhinez, sukaldeetara, egon-geletara, kotxeetara, eta, finean, gure belarri putzu gozotara hegan iritsitakoa, baizik. Xorroxin irratian, hamabostean behin plazaratutako iritziak aurkituko dituzuelako liburu atsegin honetan.

Baztango ihintzak hezetutako, eta maiz, lanbroz estalitako herrietan, uhin salatariz bustitako iritzi pilulak, alajaina. Ahozko molde eta jario aberatsean irrati zabaltzeko prestatutakoak, alegia. Eta, gerora, Metazirikoek eskatuta, paperera moldatu eta txukundu ondok, liburu bihurtu diren arte. Atzekoz aurrerako prozesua burutuz.

Inondik inora pausoa aldatu ezinda dabilen pertsona ororen kontzientzietan eragitera datozen artikulua sorta ezustetsuak aurkituko dituzu liburuan. Bizitzeko modu arduratsu eta libreago baten amestiar kezkatua, izaki, uneko albiste eta gaien inguruko liseriketa mamitsua proposatzen dizue Elurrek.

2010-2014 urteen bitartean idatzitako gogoe-tak dira guztiak. Esate baterako: Euskal Herriko mendi ibilaldi, bueltaxka eta beste proposatzen dituen, eta, AHT-ren iragarkia dakarren aldizkariaren ez buru eta ez hankaz, arituko da. Edo Irla bakarti batera zer eramanen zukeen galdetuta, itsasontzia eramanen zuela, Maialen Lujanbiok emandako erantzunaren aipuz, bestela. Edo Txillardegiren heriotzaren ondok Euskaltzaindiak idatzitako artikuluz, ere bai. Edo, Pastoralaz, Kurduetaz, ordu aldaketaz, presoetaz, bizitzaz, ihotetaz... hamaika dira, bere begiratuaren zorroturan jorratu dituen gaiak. Txorrotako ura bezain naturala behar lukeen ikuskera berezko-tik, gure gozagarri, atsegin handiz, eta maitekiro paperera ekarritakoak.

Momentuz, Baztango eta Zugarramurdiko salmenta toki ohikoetan aurkituko duzue salgai.



 Iñigo Ibarra



HARTZA

Joseba Sarrionaindia idazlearen "Hitzen ondoeza" liburua erabiltzen dugu Esan Erran irratian kuñak egiteko. Liburu hau hiztegi pertsonal bat bezala idatzia dago. Ehunka hitzen definizioen artean, gehien gustuko dudana "Jaikitze ordua" deitutakoa da. Neguko goiz hotz batean ohean goxo-goxo zaudelarik, altxatzeko garaia ailegatzan denean pentsatzen denari buruz hitz egiten du definizio horrek. Esaldi horien artean badago bat kitzikatzen nauela irakurtzen dudan bakoitzean: "Hotzak bere zakurrak askatzen dituenean". Ikaragarria. Gaurko artikularen titulua hau izan liteke: "Hotzak bere zakurrak askatzen dituenean, hartza lasai lo dago".

Loaldi hauek ikertzen dituzten biologoek oraindik ez dakite oso ondo zeren arabera eta nola lortzen duten negu osoa igarotzea ezer jan gabe eta gorputzaren funtzio guztiak erabat motelduta. Harritzekoa da hainbeste denbora lotan egotea.


Hartza ugaztun orojalea da, ursidoen familiakoa. Animalia hau hainbat tokitan bizi bada ere, gurean, nik dakidala behintzat, gaur egun ez da alerik aurkitzen. Aspaldi bizi izanaren arrastoak Abaunzko kobazuloan aurkitu ziren, animalia honen matrail eta femurrak aurkitu baitziren. Historiaurrera begira jartzen bagara, beraz, hartzaren bat irudikatu dezakegu Ultzama edo Odieta aldean bizitzen. Pentsa!

Tradizioak berebiziko garrantzia dauka Arizkungo iyoteetan. Konpartsa hatz batek irekitzen du ahari-laruz estalita goitik behera. Hartza zainduz, atso konkortuak, mozorroz estalitako bizilagunak, mamuak, eta ezkontza bat irudikatzen duten ezkontideak. Errepresentazioa, aurten otsailaren 20an izanen dena, xumea da eta, aldi berean, harrigarria. Hartza bere zaintzaileengandik askatzeko ahaleginetan, eta askatzea lortzen duenean aurretik harrapatzen duen ororen kontra oldartzen da. Kontraste handia dago hartzaren basakeriaren eta arratsaldean dantzatzen den Sagar Dantzaren dotoretasunaren artean.

Hartz panda erraldoia 12 ordu eman ditzake banbu jaten. Hartz oso usaimen zorrotza dute, txakurrena baino are zorrotzagoa. Haien larru preziatua da hartzek jasten duten jazarpenaren arrazoa, eta horregatik dauden 8 espezieetatik 6 desagertzeko arriskuan daude. Gizakiok bezala, hartzak ere hanka-zolarekin ibiltzen dira (plantigradoak dira), arriskua susmatzean, jana bilatzean edo borrokatzean lau hanketan jartzen da. Hartz guztiek igeri egiten dakite, nahi zeta poloko hartza den hobekien igeri egiten duena; esan liteke itsasoko ugaztun bihurtu dela.

Panden bitzta sexuala

Ezaguna da animalia hauek gatibu daudenean ez direla ugaltzen. Arazo nagusia da arrak ez dutela interesik ugaltan emeak araldi garaian badaude ere. Arazo hau konpontzeko, milaka ahalegin egin dira panden sexu-grina eragiteko, besteak beste, pandak larrutan agertzen diren pelikula pornografikoak ikusarazi; baina, dena alferrik izan da. Berriki, ikertzaile talde batek pilula urdin hori emateko erabakia hartu zuen, baina zoologo taldearen harridurarako, ez zuen emaitzarik izan. Jakina azalpen erraza du horrek: sendagai horrek ez du sexu-grina handitzen, eta ez du ere erektio eragiten estimulu egokirik ez badago.



ZORIONAK ZUEI!



JUNE



PELLO ETA FELISA



Irene



Miguel



IBAI



IMANOL

**Jarri zaituz kontaktuan
gurekin iragarkia sartzeko!**



pulunpe@gmail.com

VENTA DE LEÑA A DOMICILIO



☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com



Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ



Internet etxean arazorik gabe!

- 22 Mb-erainoko abiadura, hilean 44,59€-tik aurrera. Internetera konektatu, zure etxearen kokapena arazoa izan gabe.
- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500

WWW.SENATEL.ES

info@senatel.es

SENAtel
Telecomunicaciones



Atera zaítez artaldetik!